



## Azkenetan dira sanjoanak

**AMAIERA** ▶ Abaltzisketan, Belauntzan eta Tolosan gaur bukatuko dira sanjoanak; hiru herrietan egitau zabala dute egun osorako

**HASIERA** ▶ Batzuk bukatu eta besteak hasi; Leaburun ekin diete sanpedroei; eskualdeko herrietako udako jaiak badatoz pixkanaka ▶ 46



Tolosan. Koadrilen Eguna izan zen atzokoa; jendez eta kolorez bete zuten herriko gazteek herria. Eguerdiari Ferialekuan bildu ziren —argazkian— bazkaltzen. NOELIA LATABURU



## LANDARRI, S.L

**Hilerrien ustiapena eta kudeaketa**  
Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak	- Hilerrien proiektuak	- Panteoiak
- Lurpetik atera	- Hilerrien eraldaketa	- Hilobiak
- Gerakinen lekualdatzea	- Eraikuntza ezberdinak	- Estelak
- Gerakinen errausketa	- Hilobi apaingintza	- Fotozeramikak
- Errausketa zerbitzua	- Hilarriak	- Estantziazko teknikak

Santa klara, 1 behea - 20400 Tolosa      Bidasoa kalea, 7 behea - 20100 Errenteria  
Tel./Faxa: 943 67 01 14                      Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41  
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552              Zerbitzu Iraunkorra: [www.landarri.com](http://www.landarri.com)

### ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

"Zure helburua lan egitea bada..."

<b>OSTALARITZA ETA TURISMOA</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ Jatorre arloa.</li> <li>■ Sukaldaritza.</li> <li>■ Gozogintza eta okingintza.</li> <li>■ Jatorre eta laboreko zerbitzuak.</li> <li>■ Sukalde-laguntzalea, I. maila.</li> <li>■ Ostalua arloa.</li> <li>■ Bidaia agentziak.</li> <li>■ Turismo-informazio eta merkataritza.</li> </ul>	<b>INFORMATIKA</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ Informatika-sistemen administrazioa (A eta D).</li> <li>■ Informatika-aplikazioen garapena (A eta D).</li> <li>■ Sistema informatikoen ustiaketa.</li> </ul>
<b>MERKATARITZA ETA MARKETINA</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ Nazioarteko merkataritza.</li> <li>■ Merkataritza-kudeaketa eta marketina.</li> <li>■ Merkataritza.</li> </ul>	<b>ADMINISTRAZIOA</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ Administrazioa eta finantzak (A eta D).</li> <li>■ Administrazio-kudeaketa.</li> <li>■ Idazkaritza.</li> <li>■ Bulego-laguntzalea, I. maila.</li> </ul>

**BENETAKO PROFESIONALA IZANGO ZARA**

**MATRIKULA ZAITEZ!**  
☎ 943 316 900

  
Berio Pasealekua, 50 - 20.018 Donostia

[www.cebank.com](http://www.cebank.com)

TOLOSALDEKOHITZA.  
INFO ▶Nolako Tolosa  
nahiko zenuke?

Ahal bezainbeste BOE egiteko lur izan beharko luke Tolosa berriak. Bestalde, gazteek horrenbeste eskatzen (eta hiriburuan aurkitzen) duten merkatalgune bat eraiki beharko litzateke Tolosari berriro jai eta merkatal giroa itzultzeko.

AGIRRE ▶ TOLOSA

Egiten ari diren azpiegiturak ondo daude, orokorrean. Proiektu guztiak burutzen badira (Usabal, Leidor, Euskal Herria plaza, Abastos, Zerkausia...) herri ederra izango dugu. Baina azkenean tolosarron esku dago herri bizi eta aberatsa eraikitzea, arlo guztietan. Zertarako bihotzik gabeko zementoa? Ah, eta bidegorria Rondilla kaletik kendu mesedez.

KAKUN ▶ TOLOSA

## UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

## Hitzak eta testuinguruak



**B**ada izugarri gustatzen zaidan Aliziaren pasarte bat. Bertan, Alizia Humpty Dumpty arrautza-buru egoskorrekin ari da hitzetan. Bapatean, Humpty Dumpty hitzak gogoak ematen dion moduan, ez dagozkien esanahiekin lotuta, erabiltzen hasten da. *Ni* hitza erabiltzen du *zu* esateko, edota *zapata krokodilo* esateko. Noski, ez zaio ezer ulertzen, Aliziak aurpegiatzen dion moduan. Hitzek badute esanahi bat, badute erabiliak izateko testuinguru jakin bat, eta testuinguru hartatik ateratzen baditugu, ulergaitz den zerbait besterik ez dugu esango. Hitzak beren testuingurutik kanpo erabiltzen baditugu, zentzugabekeriak bakarrik esango ditugu.

Baina zentzugabekeria ez dago hitzekin bakarrik lotuta. Gauza, gertakari eta ekintzek ere badute dagokien testuinguru propio bat, eta testuinguru hartatik kanpo ulergaitzak bihurtzen

dira. Eta ekintza bat bere testuingurutik kanpo gertatzen denean, bi zentzugabekeria mota sor daitezkeela uste dut. Normalki, zerbait hori absurdo iruditzen zaigu, groteskoa. Adibide bat: manifestazioak oker dagoenaren aurka protesta egiteko dira, denontzat eskubide gehiago exijitzeko. Horregatik, egun hipotetiko batean apaiz-artalde bat kalera aterako balitz desberdina dena bizitsua dela protesta egiteko, desberdin diren horiek eskubide gutxiago merezi dituztela errebindikatzeko, manifestazio hipotetiko hori zentzugabea eta ulergaitza litzateke. Zentzugabea, groteskoa eta higuin garria.

Baina badago beste zentzugabekeria mota bat, ekintzaren ordez ohiko testuinguruaren beharra absurdu egiten duena. Sotana beltzez jantzitako apaiz ardi galduren bat ostadar margo betetako manifestaldiren batean ikusita sentituko genukeen zentzugabekeria mota litzateke, edota irri, hitz edo ukituren bat ez dagokion momentu edota tokiren batean jasotzean sentitzen duguna. Eta, azken batean, beren testuinguru propioetan egoki erabilitako hitzei zentzua ematen diena azken zentzugabekeria hauek direla esango nuke.

IÑAKI ARRATIBEL ▶  
TOLOSA CF«Erditik gora  
bukatu  
behar dugu  
sailkapenean»

HITZA

**Joxemi Saizar ▶** Duela gutxi izendatu dute Iñaki Arratibel kirol sendagilea Tolosa CFko lehendakari.

**Nola animatu zara?**

Jon Aldazabal zinegotzia izanik, eta klubak Udalarekin harreman onak izan arren, ez genuen egokia ikusten karguan jarraitzea, baina inork ez zuen hartu nahi eta zuzendaritza taldean dauden bi anaiek animatuta hartu dut. Futbol sailak du pisurik handiena eta orain artekoek eramango dutela esan didate.

**Futboleko mailaz igotzea lortu duzue. Nola planteatzen duzue denboraldia?**

Mundu profesionaletik nator, baina hemen ezinezkoa da hori gaur egun. Talde ona daukagu, hemengo jendearekin, diruari garrantzi handirik eman gabe, ilusioarekin... Sailkapenean erditik gora bukatu behar dugu.

**Beste sailetan zein asmo duzue?**

Eskubaloia galdu zen eta hori birsortu nahi dut. Igeriketa klub berria sortu da eta laguntzeko prest gaude. Atletismoa, saskibaloia, gimnastika, pilota... hor daude. Bestalde, herrian hainbeste kirol elkarte izatean, indarra galitzen dugu erakundeen arrian. Elkartuta hobeto ibiliko ginatke, baina guk ez du ezer monopolizatu nahi.

**Kirol instalakuntza berriak izango ditugu laister. Nola geldituko da Berazubi?**

Instalazio horiek gauza berriak egiteko aprobetxatu behar ditugu. Berazubi ez dugu hiltzen utzi behar, oso interesgarria da denontzat. Erdigunean dago eta etxeak egiteko oso tentagarria da, baina non egin daiteke Tolosan horrelako beste estadio bat? Ez dago beste lekurik.

## SANJOANETAKO IRUDIA ▶



## Eskopetarien burrunba: helduen gozagarri, haurren ikara hotsa

**Iraxte Etxebeste ▶** Eskopetarien jarduna da, beharbada, San Joan Egunean Tolosan izaten diren ekitaldietan jende gehien biltzen duena. Ez konpainia bateko eta beste kideen artean bakarrik; haiek ikustera joaten diren herritarrak ere asko eta asko izaten baitira. Batzuek harrotasunez ateratzen dute kalera eskopeta egun horretan. Estreinaokoz arma eskuan hartzen duenak ere uga-

ri izaten dira. Kontua da, onerako edo txarrerako guztienean ere zera handia ateratzen dutela, eta horrexek gozamen eragiten die la batzuei, eta ez hainbeste besteei. Aukeratutako argazkia da horren adierazle; konpainia guztiak Trianguloan azken deskargak egiteko biltzen direnekoa. Izan ere, halaxe da eskopetarien burrunba: helduen gozagarri, eta, era berean, haurren ikara hotsa.



IRATXE ETXEBESTE

MINUTU ERDIAN ▶

Laster, Partaidetzako Jardunaldiak

UDALA ▶ Tolosarrekin iritzia emateko aukera izango dute uztailaren 8an eta 9an egingo diren partaidetzako jardunaldietan. Datozen urteetarako aurrakusten diren beharren inguruan ariko dira, udal planteamendua berrikuspun prozesuan. Interesa dutenek 943 69 74 50 telefonora edo partehartu@tolosakoudala.net postara zuzendu behar dute.

Arraunerako zaletasuna, berrindartuta

KIROLA ▶ Arraun zaletasuna berpiztu eta indartu egin da azkenaldian. 17 batel ikusi ahal izan ziren aurreko igandean Orian eta gaur jokatuko dituzte finalak. Adin guztietako neska-mutilak ari dira. Ez Tolosan bakarrik. Ibarren hiru batel osatu dituzte. Gaur gosaria prestatu dute zaletuentzat. Gazteluk ere badu bere batela; onenetakoa, gainera.



Sekulako giroa piztu du Tolosaldean arraun uholdeak. HITZA

Tolosako jaietako argazkiak ikusi nahi dituzue?

SANJOANAK ▶ Asko eta asko ez dira egunkari honetako orrialdeetan sartzen, baina horregatik ez dute gutxiago merezi. Bada jakizue sanjoanetan ateratako argazki mordoak zuen eskura jarri duela Hirzak. Bere web orrialdeko irudietan aurkituko dituzue ugari; txoko eta une askotan ateratakoak. Begiratu, agian horietako batean agertuko zarete eta!

ESANA ▶



JUAN GARMENDIA  
ETNOGRAFOA

«Zerbait gertatzen ari zen gure usadioetan eta horrek eraman ninduen ohituraren erroak ikertzera»

J.M.VELEZ DE MEND.  
IDAZLEA

«Niretzat Juan Garmendia argi dorrea izan da gauza askotan; bizitza interesgarria du»

DATUA ▶

240

**pilotari.** Gaur goizean jokatuko dira Beotibarren HITZA Pilota Txapelketako finalak. Pilotari kopuru hori izan da parte-hartzaile azken hilabeteetan eskualdean jokatutako lehiari. Pilotari txikienetatik hasi eta profesionaletaratu jautsi egiteko puntuan dauden bitarteko haur eta gazteak dira. Bada pilota harrobia inguruan.

TOLOSA ▶ MUSIKA

JOXEMI SAIZAR

Iraola zuloko pagoetatik biolin doinuak ateratzen ziren zerurantz asteazken iluntzean. Urkizu inguruko basoa orkestra baten musikak sorgindu zuen solstizioaren karira. Dozena bat gazte, harizko soinu tresnez armatuta, izan ziren sorginkeriaren errudunak. Angel Unzu nafarra eta urrutiagoko Waldermar Ahlen, Stravinsky eta Dobrogozs egileek jarri zituzten bitartekoak, notak, pentagramak. Entzule harritu-txundituak, lurtean eserita, inoiz ikusitako-amestutako natur jaialdiaren partaide sentitzen ziren Ernio bideko paraje zoragarrian, Mendikute mendia magalean. Pagoek ere musikaren erritmora dantzatzeko zutela zirudien.

Intragarririk ekitaldia izan arren, Urkizurainoko aldapa bihurrietan goraka, inork ez zuen susmatuko zain genuen ikuskizuna. Et Incarnatus orkestrak, beste behin, lortu zuen entzulegoa asetzera, sei garren aldiz. Solstizio kontzertua ohitura bilakatu dute eta hasierako urteetan Uzturreko tontorrean eskaini bazuten ere, leku aldaketan asmatu egin dutela esan daiteke. Urkizukoa baino paraje hobirik ez dago horrelako emanaldi baterako!

Lagun-lankide batzuk ere gogoan izan zituzten musikari gazteek. Duela urtebete hil zen Imanol kantaria omentzeko bere *Mendian gora*—Xabier Amurizaren hitzak, Juantxo Zerberioren moldaketa— abestu-interpretatu zuten bildutako guztien artean. Hainbat disko eta emanalditan elkarrekin ari ziren Imanol eta Et Incarnatus orkestra.

Antton de Pedro hil berriaren omenez—nola ez—Inauteri doinu bat eskaini zuten orkestrako kideek: Juantxo Zebe-

Biolinak basoan

Natura eta musika uztartu ditu Et Incarnatus hari orkestrak Urkizun, Iraolako zuloko, emandako solstizio kontzertuan



Emanaldi gogoangarria eskaini zuen Et Incarnatus orkestrak Iraola zuloko paraje ederrean. JOXEMI SAIZAR

riok moldatutako *Troika*, Karlos Linazasoro idazlearen letra jostalari eta alaiarekin. «Azkenetako kaleko musikaria» bezala definitu zuen harakin eta inauterizale tolosarra Migel Zerberio orkestra zuzendariak.

Musika festaren ondoren tripa festa iritsi zen. Orkestrako kideek, lagunak, senitartekoek eta bildutako entzuleek afari-merienda izan zuten kontzertuleku berean, denek eramanda-

ko tortilak, zizka-mizkak eta edariak. Urteko egunik luzeenetakoa ilundu arte han izan ziren jan-edanean eta solasean festa apartaren partaideak.

Jaitsiera etorri zen gero, bartzuk oinez, besteak autoz—Udaltzaingoaren laguntza eskertu nahi dute antolatzaileek—. Han gelditu ziren bakarrik Iraola zuloko pagoak. Bizitutako momentu gogoangarriaren zukua dastatzen eta

luzarazten, biolin doinuak adar artean trabatuta zituztela oraindik. Urte osoan gogoan izango dute, hurrengo urteko emanaldiaren zain.

Beste behin—azkena, Inauteri doinuekin egindako diskoa izan zen—ekarpen aberasgarria egin dio gazte orkestra honetako Tolosari. Han izan ginenok hurrengo arte zain egongo gara. Iraola zuloko pagoak bezala.



## TOLOSA ▶

## Udako ekintzetan parte hartzeko izen-ematea

Tolosako Gazteria Departamenduak uda honetarako antolatu dituen ekintzetan parte hartu nahi duten gazteak oraindik garaiz daude, izena emateko epea beste aste-bete luzatu baitute, ostegunera arte, zehazki. Kultur Etxean eman behar da izena, goizez nahiz arratsaldean egin daitekeelarik. Egitarau osoan parte hartzeko, 30 euroko matrikula ordaindu behar omen da, jakitera eman duteenez; edo solteetan bakarrik egin nahi izanez gero, berriz, 12 euro bakoitzeko. Tolosakoa izan eta 12-15 urte bitartekoa, gainera, uztailean zehar harrerako ariketa eta kirola egiteko ekintza mordo da dute antolatuta. Denbora non igarotzea izan, badute, beraz gazteak: golfa, eskalada, piraguismoa, karts-ak eta beste hainbeste motatako jarduerak baitituzte iragarritan. Informazio gehiago eskuratzeko nahikoa da Gazte Topagunera edota Kultur Etxera gerturatzea.

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Balirrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion Klinikak 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

## Garrarioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

## LEABURU ▶ SANPEDROAK

## Hasiara polita eman, eta San Pedro Eguna ospatzeko zain dira

Eguna bera astereguna izaki, atzokoan hasitako festetan giro ona eta herriko presoari oroimena ere egin diote



Muslariak fin aritu ziren jokoan, arerioaren enbiteei, hitzetik hortzera erantzunez. JAIONE ASTIBIA

## JAIONE ASTIBIA

Atzo eman zieten herriko festei hasiera leaburuarrek ere. Sanpedroetan buru belarri murgilduta, mahaiko jokoein egin zuten estreinaldia. Afalurrean, gainera, Andoni Otegi herriko presoari bidaltzeko, lagunarteko argazkia ateratzeko elkartu ziren.

Horrela, bada, Zazpi Bide elkartean egin zuten mus txapelketan 11 bikotek hartu zuten parte, asko. Aurrena zozketaz, 6 bikotek jokatu zuten 3ren kanporaketa erabakitzeke. Handik aurrera faseka. Helduak gehienak, gazte batzuk tarteko, «4 erregetara eta 3 seikotara»

## iragarki laburrak ▶

**Haur zaintzaileak,** bereziak, adinekoak, hezitzaileak. Lanpostu libreak: jantokiak, haur eskolak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefonon.  
**Administrari laguntzaileak.** Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Gidariak.** Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Suhitzaileak.** Hurrengo deialdiak:

Gipuzkoa. 1.400 euro/hilean. Astean bi lanegun. Azken lanpostuak. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Peoiak, ofizioko langileak.** Lanpostu finkoak: igeltseroak, argiketariak, iturginak... eraikin publikoetan mantentze-lanetan aritzeke. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Administrari laguntzaileak.** Plaza libreak daude udalberako. 1.200 euro. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Agirre eta Zubeldiak botako zituzten bertsoekin. Ondoren trikitilariak, arin-arin dantzatzeko, nahi izanez gero.

Asteburu honetakoak horretan bukatu baziren ere, San Pedro Eguna ospatzeko dute asteazkenean berean, herriko jaien patroia egunean, 11:00etatik aurrera zer ikusia izanen baita bertan, dagoeneko umeak ere oportretan egonik, hauek ere herriko festetan txokoa izanez. Herriko dantzarien saioak eta toka txapelketaz gain, jolasak eta txokolatada ere izanen baitira.

Eta beste ekinaldia, bete-betea, datorren igandean dute Leaburukoek, herri kirola ardatz dela eginen ere: Gipuzkoako Harri Tzikietako Harrijasotzaile Txapelketa eta Trontza Txapelketa, hau ere Gipuzkoakoa, bertan burutuko baitira.

## TOLOSA ▶

## Sanjoanek eta euri tantek ez dute asteen batere lagundu

Produktuen zerrenda zabala eta borobila izan zen benetan atzo; fruitarena goraka doa

## PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasaia izan zen; euri finak eta sanjoanek eragina izan zuten erosleengan, eta ez zuten batere lagundu salmentetan. Produktuen zerrenda, ordea, benetan zabala eta borobila izan zela esan dezakegu. Barzakien artean, babak, ilarrak, tomateak, zerba, espina-ka, tipulina eta baratxuri freskoa aipa daitezke. Fruta eskaintza goraka doa pikkanaka; marrubiak eta gereziak izan ziren atzo nagusi. Lehen San Joan sagarrak datozen astean helduko dira.

## ATZOKO AZOKA ▶

Landareak	merk.	gares.
Dhalia	2,30	-
Eromeroa	4,00	6,00
Porrua	2,40	-
Piparra	0,20	-
Gernikako piperra	0,20	-

## Bertako produktuak

Onttoa	24,00	25,00
Ziza horia	20,00	-
Kalabaza	1,50	3,00
Kalabazina	0,72	-
Arrautzak	1,30	2,10
Artisau ogia	2,29	2,97
Ogi biologikoa	2,53	-
Ardi gazta	12,00	14,00
Behi gazta	7,00	7,50

## Produktu ekologikoak

Intxaurra	4,00	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Aza	2,50	3,00
Azukrea	3,35	-
Mermelada	3,00	3,60

Parte-hartzean eta talde-lanean oinarritutako metodologia



**ELHUYAR**  
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ELHUYAR ZENTROA

- Euskara-planak enpresa eta erakundeetan
- Esparrurka landutako euskara-planak udalerrietan: lan-mundua, aisialdia, merkataritza...
- Gogoetak, plan estrategikoak eta erakundeen antolamendua hobetzeko prozesuak

www.elhuyaranoikularitza.net  
aholkularitza@elhuyar.com  
Tel. 943 372852 (Usurbil) 94 4668816 (Durango)





**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** Batel estropadetan Ibarroko arraunlariei animatzera joan nahi dutenentzat gosaria prestatu dute Sendi Ekintza elkartearen 10:00etan.

**Tolosa.** Odol bankoa etorriko da bihar Kultur Etxera. Odol emaleei egiten zaie deialdia hara joateko, 18:30etik 20:30era.

**KIROLA**

**Orendain.** Gipuzkoako sega kanporaketa, Zubeltzu azpi zelaian, 12:00etan. Mikel Aranalde Zelaia, Juan Manuel Erasun, Eizmendi, Jesus Mari Ormaetxea Telletxea eta Andoni Zuriarrain Iturbe segalariak ariko dira sega apustuan.

**Tolosa.** HITZA Pilota Txapelketako finalak: jubentzetan, etorkizunekoetan eta maila berezian Beotibar pilotalekuan 10:30ean. **Tolosa.** Tolosa CFK binakako 37. Pala Txapelketa antolatuta Berazubiko frontoian. Izen-ematea: bulegoetan 17:00etatik 20:00etara (Berazubi estadioan, 943 67 17 49) edo 607 447 677 telefonoan (Pello). Prezioa: bazkideek 10 euro, bazkide ez direnek 20 euro.

**MUSIKA**

**Ibarra.** Loatzo musika eskolak ikasturte bukaerako emanaldia eskainiko du bihar, 19:00etan, elizan. **Tolosa.** Isidro Larrañaga akordeoi orkestraren kontzertua Leidor aretoan 12:30ean. Orkestraren 25. urtemuga da eta partaide ohiak izango dira Isidro Larrañaga omentzeko. **Tolosa.** Udal Musika Eskolan haize soinu tresnen ikastaro amaierako kontzertua, bihar, 20:15ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Leitza. Gimeno. Elbarren, 52. 112.  
Tolosa. Iturriotz. Euskal Herria, 3 (Ibarra). 943 670 515.

**Bihar**  
Leitza. Larraia. Elbarren, 95. 112.  
Tolosa. Etxebeste. Gernikako Arbola, 3 (Tolosa). 943 651 040.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# 'Dinamartxa'-ak batuta

**TOLOSALDEA ▶** Tolosarrak eta ondarrutarrak elkartu zituen atzokoan ere Dina Bilbaoren omenezko martxak; 'Zapato azule' jaia ospatu zuten Bizkaiko herrian



Goian, txirindulariak Tolosatik ateratzerakoan; behean, bizkaitarrekin batera Ondarrura iristen. A. ELDUAIEN

**IRATXE ETXEBESTE**

Zortzi urte badira Ondarroan (Bizkaia) *Zapato azule* deitzen dioten jaia ospatzen hasi zirenetik. Aurtengoa zen, hain zuzen ere, zortzigarrena. Atzokoa. Eta urdinez, *azulez* janzen dira festa egun hori ospatzeko ondarrutarrenak. Tolosaldean eta Leitzaldean bezala, Ondarroa aldean ere badute HITZA egunkaria: Lea-Artibai eta Mutrikukoa, alegia. Bestela ezin, eta hango kazetariekin harremanetan jarrita osatu ahal izan dugu honako kronikatxo, bada.

Esan nahi baitugu atzokoan Ondarroan zer nolako giroa izan zuten jakiteko bizkaitarrekin bat egin behar izan genuela. Eta pentsatuko duzue: zertara dator orain eskualdeko egunkarian Bizkaiko herri bati buruzko albistea ematea? Ba... Jai egun hori ospatzen dutenak ez direlako ondarrutarrak bakarrik izaten; baizik eta Tolosaldekoak ere bai. Makina bat.

Izan ere, *Zapato azule* deitzen dioten festa egun horren harira bizikleta martxa bat ere egiten dute. *Dinamartxa* izeneko. Dina Bilbao zenaren omenez, Tolosatik irten eta Ondarroaraino joaten dira bizikletazaleak; Dinaren lagunak eta jaia gustuko dutenak. Horiek guztiak. Eskualdekoek herritik irteten dute, gero, ibilbidean zehar martxari ondarrutarrak gehitzen joateko. Azkenean, elkarrekin egiten dute herrirako bidea, eta han makina bat jende agurtzen ditu txirindulariak bide bazterretik.

«Ondarroako kale eta txokoak jendez gainezka egon ziren egun osoan, argi utziz, herriko jairik maitatuenetariko bat bilakatu dela», esan ziguten Bizkaiko lagunak: «Goizeko poteo, pintxo eta kontuen ondoren, eguerdian iritsi zen eguneko momenturik berezietakoa: *Dinamartxa*-ren iritsierak jendez asko elkartu zuen Zubi Zaharraren parean».

Latxanbre plazan egiten duten Euskal Herriko kamiseta azokagatik ere bada ezagun jai hori. Beste urtebetez, bat egin dute Tolosak eta Ondarroak. Eta hala bedi urte askoan!


**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK**  
Onditz Ayestaran (Berrobi).  
Gaur 19 urte. Noizko masaje horiek? Koadrilaren partez.



**URTE ASKOAN**  
Izadi Otamendi Garitano.  
Zorionak Izadi! Etxekoan, eta, bereziki, Maialenen partetik.



**URTE ASKOAN**  
Biharko ordez zorionak Sensei.  
Zure ikasleen partetik.



**URTE ASKOAN**  
Harkaitz Amondarain (Amezket).  
Gaur 2 urte. Zorionak familia guztia-  
ren, eta, batez ere zure anai Ibairen partetik.



**URTE ASKOAN**  
Unai Arrieta Kortajarena. Gaur 2 urte.  
Muxu handi bat ebekoan, eta, batez ere,  
Ariz, Jokin eta Harriren partetik.

**HITZA,**  
zorion argurren  
tarte

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 beheko  
TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa  
LEITZA

Mesedez, argazkia bi  
egun lehenago ekarri.  
Mila esker!